

Ipuinak eta proposamenak

Adi-adi begira egiezu ondoren datozen ipuinei.

Ipuin bakoitza proposamen batekin dator, hauetariko bakoitzak aldaketa txiki bat, eraldaketa bat, manipulazio bat eskatzen du.

Eskaintzen zaizkizuen ipuin bakoitza ikasleei kontatu edota irakurtzerakoan kontutan izan ondoren eskatuko zaizkien manipulazio proposamenak.

Era honetako ekimenak, noizean behin egitea komeni da, ipuinen atalak manipulatu eta egitura literarioak lantzeko intentzioarekin.

Atzapar-luze katua (2. orrialdea)

Jarraian irakurri edota kontatu ondoko hitzetaraino: “...zaku batean sartu eta ibaira botako nau...”.

Nola bukatuko duzu ipuina? Lehendabizi kontatu gero irakasleari diktatu bukatzeko.

Lau adiskideak (3. orrialdea)

Bukaerako hitzetan sorginkeriak aipatzen ditu Nikanorrek.

Aldatu bukaera: lapurrek erabakitzen dute etxe hartara sartzea, eta gero?

Sagu txiki sagu maite (4. orrialdea)

Zeren beldur zara zu: iluntasuna, sugeak, txakurrak...?

Zu sagutxoa izango zara eta katuaren lekua zu beldurtzen zaituen horrek hartuko du.

Ea nola gelditzen den ipuin berria: kontatu lehendabizi eta gero idatzi.

Udazkeneko lehen printzak (5. orrialdea)

Ipuin hau oinarri, antzerki gidoi bat idatzi denen artean.

Horretarako irakasleari diktatu eta honek ordenagailuan idatziko du.

Gero antzeztu.

Atzapar-luze katua

Atzapar-luze katua kezkatua bizi zen aitona Nikolasen baserrian. Saguek denetik jaten zuten baserri hartan: garia eta irina, artoa eta maindireak, egurra eta papera. Behin saguek berrogeita hamar euroko laranja bat ere jan zioten aitona Nikolasi.

Horregatik, aitona Nikolasek honela esan zion goiz batez Atzapar- luze katuari:

-Atzapar-luze, sagurik harrapatzen ez baduzu, zaku batean sartu eta ibaira botako zaitut.

Atzapar-luze pentsa eta pentsa egon zen egun oso batean baserriko atarian. Eta asko pentsatu ondoren, erabaki sendo bat hartu zuen:

-Azokara joango naiz. Azokan gazta erosiko dut, tranpa batean jarriko dut gero gazta eta “traaanp!” saguak harrapatuko ditut.

Joan zen azokara, erosi zuen gazta, jarri zuen gazta tranpa batean eta zain geratu zen sukaldeko atearen atzean. Iritsi zen Bizar Tente sagua tranparaino, usaindu zuen gazta eta esan zuen:

-Uuum! Gazta hau gogorregia da. Ez noa jatera, bestela hortzak hautsiko zaizkit eta. Iritsi zen Isats Arin sagua tranparaino, usaindu zuen gazta eta esan zuen:

-Uuum! Gazta hau handiegia da. Ez noa jatera, bestela tripako mina hasiko zait eta. Iritsi zen Sudur Zabal sagua tranparaino, usaindu zuen gazta eta esan zuen:

-Uuum! Gazta hau zaharregia da. Ez noa jatera, bestela gonbitolarria gertatuko zait eta.

Atzapar-luze katua pentsakor eta haserre geratu zen sukaldeko ate atzean.

-Zer egin? Aitona Nikolasek sagurik harrapatzen ez dudala ikusten duenean, zaku batean sartu eta ibaira botako nau. Atzapar luze katua pentsa eta pentsa geratu zen denbora luzean. Ondoren, begiak alai eta bibotea tente jarri zitzaizkionean, aitona Nikolasengana joan zen gazta besapean zuelarik:

-Aitona Nikolas, gazta handi, gogor eta zahar hau ekarri dut azokatik zuretzat.

-Niretzat? Eta zergatik niretzat? Eh? Zergatik niretzat?

-Nirekin oso ongi portatzen zarela.

Aitona Nikolasek gazta handi, gogor eta zaharra jan zuen. Baina ez zuen tripako minik izan, ez zitzaion hortzik hautsi, ez zitzaion gomitolarririk gertatu.

Eta aitona Nikolasek ez zuen Atzapar-luze zaku batean sartuta ibaira bota.

Harrez geroz, saguek lasai jarraitu zuten denetik jaten baserri hartan: garia eta irina, artoa eta maindireak, egurra eta papera jaten zituzten. Noiz behinka bazkari ederrik ere egiten zuten aitona Nikolasi lapurtutako berrogeita hamar euroko laranjez.

Anjel Lertxundi

Lau adiskideak

Katuak, oilarrak, astoak, eta txakurrak elkar topo egin zuten behin batean basoan. Oso haserre zeuden beren nagusiekin. Katuaren nagusiak makilaz jotzen zuen; oilarra hil eta jan egin nahi zuen; astoak, berriz, lan eta lan aritu behar izaten zuen beti, eta, azkenik, txakurra lotuta egoten zen egun osoz ate aurrean eta asper-asper eginda zegoen.

Laurak adiskide egin ziren, eta, halako batean, gaua iritsi zitzaien. Ez zekiten nora joan gaua pasatzera, ezta zer egin ere.

Ibilian-ibilian, argi bat ikusi zuten zuhaitz artean.

-Etxe bat! Etxe bat!-oihu egin zuten.

Inguratu ziren etxera baina ez zen inor leihoraino iristen. Orduan, txakurra asto gainera, katua txakur gainera eta oilarra katu gainera igo eta oilarrak esan zuen:

-Hor barruan gizon batzuk dirua konta eta konta eta konta ari dira. Lapurrak dira, zalantzarik gabe!

-Marrua egingo dugu laurok batera –esan zuen astoak.

Eta baita egin ere! Han hasi ziren lau adiskideak arrantzaka, zaunkaka, miauka, kukurruka. Ikaragarria izan zen iskanbila. Eta lapurrek, beldurturik ihes egin zuten. Lau adiskideak berriz, sartu ziren etxean eta ahal zuten guztia jan zuten. Ondoren, argia itzali eta ohera joan ziren.

Katua sukaldera joan zen sutondora. Astoa ukuilora, oilarra oilategira eta txakurra, azkenik, ate atzean etzan zen. Basoan zeuden lapurrak zer egin erabaki nahian ari ziren; dirua hartu nahi zuten baina ez zekiten nola. Buruzagiak esan zuen:

-Tokatzen zaionak joan beharko du- eta “don-don kikilikon” hasi zen zenbatzen, Nikanor errukabeari egokitu zitzaion etxera inguratzea.

Sartu zen Nikanor leihotik sukaldera eta bi su bizi ikusi zituen sutondoan. Katuaren begiak ziren haiek, eta katuak lapurra ikusi zuenean, salto egin eta atzamarka zauritu zuen lapurraren aurpegia. Etxetik irtetzerakoan, txakurrak horzkada egin zion ipurdian. Atzera egin zuen, eta ukuilura sartu zenean, ostikada eman zion astoak. Iskanbila guzti honekin, oilarra esnatu eta “kikirriki!” egin zuen.

Tximistak baino bizkorrago egin zuen ihes Nikanorrek etxe hartatik. Eta bere lagun lapurrengana iritsi zen.

-Ezin joango gara berriro etxe horretara diru bila –esan zien Nikanorrek lapurrei-. Sorginez beterik dago etxea. Sorgin batek aurpegi osoa urratu dit atzamarkez. Ondoren, gudari batek labana sartu dit ipurdian. Ondoren, gizandi batek bi ukabilkada izugarri eman dizkit. Eta beste batek orru egiten zuen “Laga niri! Laga niri!” esanaz. Ez dakit nola iraun dudan bizirik!

Nikanorren hitzak entzun ondoren, ez zen lapurrek ausartu etxe hartara inguratzerara. Eta lau adiskideak pozik bizi izan ziren urte askotan etxe hartan, beren nagusiengandik urruti.

Anjel Lertxundi

Sagu txiki, sagu maite

Sagua lasai-lasai zebilen ganbaran.

-Egunon, armiarma; egunon arkakuso!

Armiarma eta arkakusoa oso lagunak zituen saguak. Sagua oso lasai zebilen ganbaran, ez baitzuen katurik ezagutzen.

Baina goiz eder batean, esnatu eta begietako makarrak kentzen ari zen batean, baserritarra entzun zuen sukaldean hizketan:

-Gaur azkoara joaten naizenean, katu bat erosiko dut, ganbarako sagu trakets horrek gazta guztiak jaten dizkit-eta.

Orduan armiarmak esan zion saguari:

-Sagu txiki, sagu maite,
zulotxoan gorde zaitez.

Eta arkakusoak esan zion:

-Zapik ikusten bazaitu
kris-kras eginda
jango zaitu.

Baina saguak katurik ezagutzen ez zuenez, oso ausarta zen eta erantzun zien:

-Ez nau jango!

Eta armiarmak eta arkakusoak:

-Jango zaitu!

Saguak berriz egoskor:

-Ez nau jango!

Eta, une batez pentsatzen aritu ondoren, esan zien armiarmari eta arkakusoiari:

-Ez, ez nau jango! Baserritarrak katua ekartzen duenean, zuk, armiarma, sarea jarriko diozu begietan. Baserritarrak katua ekartzen duenean, zuk, arkakuso, koska egingo diozu ipurdian.

Armiarmak eta arkakusoak esan zioten saguari:

-Eta zuk, sagu, zer egingo diozu?

-Bere aurrean jarriko naiz. Bere aurrean jartzen naizenean, ez nau ikusiko...

Armiarmak eta arkakusoak:

-Eta zer gehiago?

-Ikusiko duzue!

Eta baserritarrak eguerdian azokatik katua ekarri zuenean, arkakusoak katuari ipurdian koska egin zionean, armiarmak katuaren begietara sarea bota zuenean, eta sagua katuaren aurrean jarri zenean, katuak ez zuen sagurik ikusi, eta noski, ez zion ezertxo ere egin.

Orduan baserritarra haserretu zen katuarekin eta bota zion:

-Katu alfer, alproja arraioa! Bihar azokara eramango zaitut berriro!

Sagua lasai-lasai dabil berriro bere ganbaran. Armiarma eta arkakusoa oso lagunak ditu.

Anjel Lertxundi

Udazkeneko lehen printzak

Elena, Natalia eta hauen gurasoak etxeratu berriak ziren uda pasatzen zuten herritik. Penaz iritsi ziren kez betetako hirira, eguzki ederrak argitu eta itsaso zabalak bainatzen zuen herri txiki poxpolinetik.

-Ama, a ze penal!- esan zuen Elenak autotik irten eta etxera sartzerakoan.

-Bai, baina ez dago beste erremediorik!- esan zion amak maleta handi bati heltzen zion bitartean.

-Puf, maleta honek ikaragarri pisatzen du. Zer sartu duzu bertan, Elena?- galdetu zuen aitak.

-Nik? Ezer ez. Pitxi batzuk. Besterik ez.

Etxean sartu eta maleta handia ireki zutenean, han agertu ziren Elenak eta Nataliak herriko hondartzan bildutako kolore eta neurri guztitako harriak: arrautzak bezalakoak, perretxikuen tankerakoak, harri sorginduak, harri ausartak, harri piratak, harri ipuinzaleak... Harri bakoitzak zuen Elenak eta Nataliak asmatutako istorio harrigarri bat. Eta harri guzti haien artean, itsas kurkuilu handi, eder bat.

-Zertarako dituzu harri horiek? Galdetu zion amak.

-Jolasteko.

-Eta itsas kurkuilua?

-Itsasoak kontatzen dituen ipuinak entzuteko.

-Gu, berriz, txotxongiloen armairura goaz –esaten zuten Arlekinek eta Politxinelak- Gu antzerkia egiteko jaioak gara, antzerkia egiteko. Artista handiak gara gu eta ez hor bazterrera botatzen diren trapu zahar batzuk, Elena. Arbeleko klera ere lurretik jaiki eta bere tokira zihoan; arbel gainetik pasa eta, konturatu gabe, zerbait idatzi zuen bertan:

Elena axolakabe

Oso haserre gaude,

Elena txarrapatena,

Neska zikinena.

Elenak txirula bere apalera eraman eta xorroan sartu zuen txukun-txukun. Eta esan zien jostailuei:

-Barkatu, barkatu. Ez da gehiago gertatuko.

Ohean sartu eta loak hartu zuen berehala. Malko txiki bat irristatu zen Elenaren aurpegian. Gau guztian ipuinak konta eta konta aritu zitzaion itsas kurkuilua. Itsas haizea entzuten zen gelan. Itsas haize goxo eta leuna.

Elenaren gelako leihotik sartu zen egunsentia, isil-isilik hasieran, gero eta argitsuago ondoren. Eta eguzkiari ere poz handia eman zion gela txukun hartan sartzeak.

Egun osoa eman zuten gurasoek udako arropak armarioko goiko apalean sartzen, jostailuak beheko apaletan, soinekoak pertxatik zintzilik, eta hauen azpiko apal zabalean oinetakoak...

Amak behin eta berriro esan zien Elena eta Nataliari laguntzeko baina hauek ez zioten jaramonik egin. Aita-amak egin behar izan zituzten lan guztiak.

Afaldu eta oheratzerakoan, Elena eta Natalia jolasean ibili ziren denbora labur batez, eta ipurdiz gora utzi zuten berriro gela. Jostailuak lurrean, arropak nahasian, eskolako tresnak zilipurdika...

-Baina, baina... horretarako egin al dugu hainbeste lan? –galdetu zien amak haserre-. Sar zaitzte ohean.

Ohean sartu eta sorgin antzeko harri zorrotz bat ipini zuen Nataliak bere burukoan; itsas kurkuilua berriz, Elenak berean jarri zuen, aurpegitik oso gertu.

Eta loak hartu zuten. Dena ilundu zenean, eta munduko hotz guztiak ere lotara joaten diren orduan, Elenak begiak ireki zituen. Norbait ari zitzaion deika.

-Xixt! Xixt!

-Nor da?

-Nor izango da, bada. Ni!

-Baina nor zara zu?

-Aibala, a ze galderak! Itsas kurkuilua!

Ohean eseri zen Elena, itsas kurkuilua hartu eta belarriratzen zuelarik. Itsas kurkuiluak esan zion.

-Nire hitz bat eta jostailuak, arropak eta ikastolako tresnak bizi egingo dira.

-Bizi?

-Ikusiko duzu.

Haize bolada handi bat entzun zen itsas kurluiluaren sakonetik. Panpin bat biolina jotzen hasi zen, arlekina dantzan, politxinela kantari...

-Uff! Nazkatuta nengoen alfonbra gainean sakabanatuta –esan zuen puzzleak.

-Bazen ordua! Ni sukaldean egoteko jaio naiz, eta ez ohe azpian, hauts guztien artean –bota zuen jostailuzko plater txiki batek.

Gora eta behera eskuinetik ezkerrera, alfonbratik apaletara, ohe azpitik kajoieta, arropak, zapatak, jostailuak, koadernoak, margoak, harkatzak, kanikak eta kromo guztiak beren tokietara joan ziren, desfile batean bezala, kantari eta erritmo bizia zainduz. Denbora gutxi barru, gauza guztiak beren tokietan zeuden.

-Ni ere banoa nire apalera –esan zion biolina jotzen zuen panpinak-. Nekatuta nago beti lurrean botata egoten, Elena. Eta mina hartzen dut zapaltzen nauzuenean.

Anjel Lertxundi